

## "GURETZAT INTERESGARRIENA TALDE LANA DA"



Nuria Revuelta [ Elgoibar Ikastola | Lehen Hezkuntza 1 ]

Nuria Revuelta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak sustatutako Kosmodisea lehiaketako Ikono Planetan Lehen Hezkuntzako 1. kategorian lehen postuan geratu den Elgoibar Ikastolako "Atxolin" taldearen arduraduna da. Azaldu duenez, taldeak harrিতa hartu du lehen postuaren berria. *"Gainerakoek lanak ikusita, ez genuen puntuazio altuena lortzea espero. Hori dela eta, ikasleek oso pozik eta ilusio handiz hartu dute berria".*

- Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?
- *Zailena, kontakizun guztia zazpi iruditari islatzea izan zen. Horregatik moztu behar izan genuen ipuina. Taldeak aukeratuta, neska-mutilek argazki-kamera hartu eta protagonistak ikasleak izango zirela erabaki zuten.*
- 2010-2011 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?
- *Guretzat, interesgarriena taldean lan egitea da, teknologia berrieekin dugun lotura ahaztu gabe.*

- Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?
- *Denbora eza. Beste jarduera batzuetan parte hartzen dugunez, denbora banatu beharrean gaude. Bestalde, argazki asko egin genituen eta zalantza ugari izan genuen egokienak aukeratzekoan. Baina, aurrera jarraitzea lortu dugu, zailtasun horiek gaindituz.*
  
- Nola ekingo diozue Kosmodisea 2010-2011 edizioko azken etapari?
- *Gogo biziz. Jada plangintzarekin hasi gara. Lan ona aurkeztea espero dugu.*